



Usurbilgo Udala

2024/05/30

2024KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Josune Urkola Larrarte
Ivan Iriondo Axpe
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Usurbilen, 2024ko maiatzaren 30ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

1.1.- 2024/04/25EKO BILKURA.

Batzarkideek 2024ko apirilaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

1.2.- 2024/05/14KO BILKURA.



Usurbilgo Udala

2024/05/30

Batzarkideek 2024ko maiatzaren 14ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO MARTXOAREN 18TIK MAIATZAREN 24RA (2024/316-2024/624).

Alkatetzak 2024ko martxoaren 18tik maiatzaren 24ra bitartean (2024/316-2024/624) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- KONTU EMATEA: KALD004 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Batzarkideei kreditu aldaketa espedientearen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- KONTU EMATEA: 2024 URTEKO FINANTZA KONTROLEKO PLANA (2024EKFI0002).

Batzarkideei 2024 urteko Finantza Kontroleko Planaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

5.- KALD006 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA (2024EKKA0005).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, 2024ko maiatzaren 15ean egindako Antolaketa batzordeak adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 850.000,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala. Honela izan da bozketa:

- Aldeko botoak: Bost(5), EHBildu (3), EAJ(1) eta PSE (1)



Usurbilgo Udala

2024/05/30

Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak aho batez erabaki du KALD006 kreditu aldaketa espedientea onartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- ZUBIETAKO LANBIDE ESKOLAKO OBRA INTERES BEREZIKO IZENDATU ETA %50EKO HOBARIA APLIKATZEA EIOZ ZERGAN (2024DEKR0049).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Isidro Zaldua Unanuek Usurbilgo Lanbide eskolaren izenean 2024-1325 erregistro zenbakiarekin 2024ko martxoaren 13an Obren zergaren gaineko behin-behineko ordainagiriari %90eko hobari eskaria egin zuen, 4.ordenantzaren 11.a artikuluren oinarritan.

2024ko maiatzaren 15eko Antolaketa Batzordean obraren ingurunabar eta berezitasunak eztabaidatu ondoren %50eko hobaria ematea ONARTU du hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Bost (5), EHBildu (3), EAJ (1) eta PSE (1)

Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

Zubietako lanbide eskolako obra interes bereziko izendatu eta %50eko hobaria aplikatzea EIOZ zergan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

2024/05/30

7.- UDARREGI IKASTOLAKO OBRA INTERES BEREZIKO IZENDATU ETA %50EKO HOBARIA APLIKATZEA EIOZ ZERGAN (2024DEKR0058).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

Nerea Tolosa Gorrotxategi UDARREGI IKASTOLA IRAKASKUNTZA KOOP ELKren izenean 2024-1512 erregistro zenbakiarekin 2024ko martxoaren 25ean Ageri Aldeko 3. solairuko obraren zergaren gaineko behin-behineko ordainagiriari %100eko hobari eskaria egin zuen, 4.ordenantzaren 11.a artikuluren oinarritan.

2024ko maiatzaren 15eko Antolaketa Batzordean obraren ingurunabar eta berezitasunak eztabaidatu ondoren %50eko hobaria ematea ONARTU du hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Bost (5), EHBildu (3), EAJ (1) eta PSE (1)

Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

Udarregiko ikastolako obra interes bereziko izendatu eta %50eko hobaria aplikatzea EIOZ zergan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- 2025EKO HERRIKO JAIEGUNA IZENDATZEA (2024IJAI0001).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2024ko maiatzaren 8ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu da apirilaren 23ko 49/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2025 urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen da.

Aipatu dekretuaren bigarren artikuluan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango direla. Horietako bat udalek finkatzen dute eta bestea Gipuzkoako udalerrri guztietan aplikatuko den tokiko jai, uztailaren 31n izango da, Loiolako San Inazio eguna.



Usurbilgo Udala

2024/05/30

2024ko maiatzaren 15eko Antolaketa batzordean aztertu da gaia eta aho batez onartu dute batzarkideek, honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Iratxe Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joxemari Lizaso, Josune Urkola eta Petri Romero.

Beraz, Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: 2025eko uztailaren 2a (asteazkena) Santixabel eguna herriko jaieguna izatea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan eta Enplegu Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- ARTZABAL ERAIKINEAN KOKATUTAKO “GURE PAKEA” JUBILATU TABERNAREN KONTRATUAREN 4. LUZAPENA (2024LIEO0002).

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“1.- AURREKARIAK

2016ko maiatzaren 10ean egindako ezohiko bilkuran erabaki zen Igor Gorritiri esleitzea Artzabal Eraikineko “Gure Pakea” jubilatuen tabernaren kudeaketa. 2016ko ekainaren 6an aipatutako esleipenaren kontratua sinatu zen.

Plegu administratiboetako 3.klausularen arabera *“Kontratuaren hasierako iraupena 5 urtetakoa izango da, hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratuaren indarraldia urtez urte luzatu ahal izango da, beste 5 urte gehiago, guztira 10 urte bete arte, Kontratazio Organoak berariaz hori erabakiko balu.*



Usurbilgo Udala

2024/05/30

Lehen hiru luzapenak buruturik daude. Beraz, 2024ko ekainaren 5etik aurrera kontratazio organuak laugarren luzapena gauzatzeko aukera du, Idazkaritza, Kontuhartzailtza eta Gizarte Ongizateko txostenetan oinarrituz. Hiru txosten hauek aldekoak izan dira. Kontratuaren jatorrizko kanonari dagokionez, hileko 1.600 euro (%21eko BEZ 336 euro, guztira 1.936 euro) izaten jarraituko du.

2.- APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Hori dela eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herritarrak batzorde informatzaileak 2024ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, aldeko bost bozkekin (Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu, Xabat Beloki, Ivan Iriondo eta Petra Romero) egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Artzabal eraikinean kokatutako “Gure Pakea” jubilatutako tabernaren kontratuaren laugarren luzapena egitea urte baterako, 2024ko ekainaren 6tik 2025eko ekainaren 5era.

BIGARRENA: Jatorrizko kanona mantentzea, hots hileko 1.600 eurotan (%21eko BEZ-a 336 euro, guztira 1.936 euro).

HIRUGARRENA: Erabakia Igor Gorritiri, Gizarte zerbitzuetako sailari eta Kontu-hartzailtzari jakinaraztea.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte, Ivan Iriondo Axpe eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

2024/05/30

10.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:45etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.